



AUTONOMIA PROZESUETAN BARNE-ORGANOAK HAUTATZEKO ARAUDIA

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

I Titulua – Prozesuaren oinarriko printzipioak

II Titulua – Organoen osaera

III Titulua – Dokumentu politiko-antolatzaileari buruz

IV Titulua – Hauteskunde-egutegia

V Titulua – Hautatze prozesua

VI Titulua – Emaizak jakinaraztea

HITZAURREA

Estatu mailako barne-organoen prozesu konstituziogilea, Sí Se Puede Herritarren Biltzarren bitartez eratu zena, eta uda udal prozesu konstituziogileen ondoren, autonomia organoen prozesu konstituziogilea hasiko da. Honela, Podemosen barne eraikuntza prozesuaren etapa amaituko da. Autonomia Erkidegoen Idazkari Nagusiak izateko hautatuak izango diren pertsonak Estatu mailako Herritarren Kontseiluko kideak izango dira.

I TITULUA – PROZESUAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK

1. Artikulua. Kontrol-organoa

Estatu mailako Herritarren Kontseilua arduratuko da Prozesua bat etor dadin Sí Se Puede Herritarren Biltzarrean ezarritako Printzipio Politiko eta Antolatzaileekin. Herritarren Kontseiluko Batzordea (Antolaketa Idazkaritza, Hedapen Arloa, Lurralde-antolaketa eta zirkuluei esleitua) izango da prozesuaren funtzionamendu egokiaren arduraduna eta Araudi hau betetzeaz arduratuko dena. Demokrazia-Bermeen Batzordea arduratuko da Printzipio Etikoetan ezarritakoarekin bat etortzeaz.

2. Artikulua. Sufragio eskubidea

Podemosen inskribatutako pertsona guztiek dute eskubidea sufragio aktiboa (hautatu) eta 18 urte baino gehiago izanik, baita pasiboa ere (hautatua izan). Podemosen barne-organok izateko aurkeztuko diren hautagaiak herritarrek aukeratuko dituzte beren botoarekin, zuzenean eta modu libre batean.

3. Artikulua. Hautagaiak zerrendetan elkartzea

Hautagaiak zerrendetan elkartu nahi badute, egin dezakete. Dena den, hauek irekiak izango dira, hau da, hautesleek hautagai bakoitza libreki markatu edo desmarkatu ahal izango dute bozkatzerakoan.

4. Artikulua. Genero-oreka

Podemosen Antolaketa Printzipioetan ezarritakoaren arabera, hautagaien proportzioak genero-oreka izan beharko du, irizpide hau bakarria izanik emaitzen zuzenketa egiteko. Prozesu honetako genero-zuzenketa 50-50 ekoa izango da, hau da, Autonomia Erkidegoen Herritarren Kontseilu eta Demokrazia-Bermeen Batzordeen osaketa guztiz paritarioa izango da.

5. Artikulua. Antolaketaren neutralitatea

Estatuko prozesu konstituziogilean zehar izan zen bezala, antolaketa osoak eta Zirkuluek bereziki dute prozesu honen bideratzaileak izateko erantzukizuna eta beraz, ekintzetan eta sare sozialetako kontuetan neutralak izan behar dute. Prozesu konstituziogilea sustatzeko ardura dute. Horrek esan nahi du, kontu ofizialetan (sare sozialak, helbide elektronikoak etab.) ezingo dela hautagaitza konkretutik zabaldu, prozesua orokorrean soilik hedatuko da.

Inskribatutako pertsonen ordea ez die eragingo printzipio honek, norbanakoak publikoki bere lehentasunak publikoki azaldu ditzake.

II TITULUA – ORGANOEN OSAERA

6. Artikulua. Autonomia Erkidegoen barne-organo motak

Autonomia prozesu konstituziogileek helburutzat dute Autonomia Erkidegoetan aurkezten diren hautagaitzek honako organo hauek eratzea:

- Idazkaritza Nagusia: pertsona bakarra.
- Herritarren Kontseilua: 34 kide (Idazkari Nagusia hauei batuko zaie).
- Demokrazia-Bermeen Batzordea: 6 kide (3 titularrak eta bestea 3ak ordezekoak izango dira; gutxienez erdia juristak izango dira, 2 titular eta ordezeko 1 edo titular 1 eta 2 ordezeko izango direlarik).

7. Artikulua. Barne-organoen kide kopurua aldatzea

Idazkaritza Nagusien dokumentu politiko eta antolatzaileetan, justifikatuz gero, Herritarren Kontseilua edo Demokrazia-Bermeen Batzordearen tamaina txikitu ahal izango da. Kasu horretan, 34 eta 6 (gehi Idazkari Nagusia) baino gutxiago, hurrenez hurren. Dena den, bozketak organo bakoitzaren kopuru estandarrera egokituko dira eta aldaketak baldin badaude, bozketen ondoren egingo dira.

Autonomia barne-organoen azken tamaina, bozka gehien dituen Autonomia Idazkaritza Nagusiak ezarritako dokumentuari lotua egongo da, betiere Estatu mailako Demokrazia-Bermeen Batzordearen onespenerekin. Demokrazia-Bermeen Batzordeak dokumentu politiko eta antolatzailean ezarritako organoaren tamainaren aldaketa onartuko ez balu, dagokion Autonomia Idazkaritza Nagusiak aipatutako dokumentua aldatu beharko du kideen kopurua moldatzeko, Batzordearen irizpideen arabera.

Ez da onartuko Herritarren Kontseilu Autonomikorik, inskribatutako 1.000 pertsona bakoitzeko, kide 1 baino gutxiago baldin badu (Idazkari Nagusia barne).

8. Artikulua. Hautagaitza motak

Taldeakako nahiz banakako hautagai-zerrendak aurkeztu daitezke. Taldeak zerrenda moduan aurkeztuko dira, baina ez daude behartuak zerrenda oso bat aurkezteko. Zerrendak irekiak izango dira.

Nahiz eta banaka edo taldeka aurkeztu, Idazkaritza Nagusiko hautagaitzak beti pertsona bakarrekoak izango dira eta dokumentu politiko-antolatzaile bati lotuak egongo dira.

Hautagaitza zerrenda moduan aurkeztu bada, dokumentu politiko-antolatzailea hautagaitza osoari dagokiola ulertuko da.

Idazkari Nagusirako hautagai batek Herritarren Kontseiluko kidea izan nahiko balu Idazkari hautatua izango ez balitz, berariaz azaldu beharko luke hautagaitza erregistratzeko bideratuko den inprimakian. Herritarren Kontseiluko kidea izan nahiko balu, zerrenda aurkezteaz gain, bere izena Kontseiluko zerrendan gehitu beharko luke. Aukera hau aukeratuko lukeen hautagaiak onartu behar du, zerrenda oso bat aurkeztu ezean eta Idazkari Nagusia hautatua izango balitz, bere zerrendak kide bat gutxiago izango lukela (Herritarren Kontseiluko bere hautagaitza hain zuzen ere).

9. Artikulua. Zerrenda motako hautagaitzen osaera

Herritarren Kontseilua eta Demokrazia-Bermeen Batzorderako, pertsona batetik hasita, 6. artikuluan ezarritako organo bakoitzaren kopurua arteko hautagaitzak aurkeztu daitezke. Zerrendak izateko, gutxienez dagokion organo kide kopuruan % 30az osatutako hautagai taldea izango da (ikus hautagaien 2. fasea).

10. Artikulua. Sufragio pasiboaren murrizketa

Podemosen inskribatutako 18 urtetik gorako edozein pertsona aurkeztu daiteke aipatutako organoetara, Sí Se Puede Herritarren Batzarrean onartutako dokumentua betetzen badu, Kode Etikoa bereziki eta prozesu konstituziogile honen baldintzak eta epeak betetzen baditu, beti ere.

Demokrazia-Bermeen Batzordeak ezarriko ditu aipatu den Kode Etikoa betetzeko beharrezko elementu materialak eta denborak.

11. Artikulua. Sufragioaren lurraldetasuna

Parte hartu nahi den Autonomia Erkidegoan inskribatua egon behar da Podemosen, bai hautatua izateko, baita hautatzeko ere.

12. Artikulua. Abalaren definizioa

Abalatzeak ez du esan nahi hautagaitza bat babesten denik. Zirkuluek hautagaitza bat abalatzeak esan du, hautagaiak Sí Se Puede Herritarren Batzarrean Printzipio Etiko, Politiko eta Antolatzaileak betetzen dituztela bermatzen dutela, erantzukizun hori baitute.

Zirkuluek neutralak izan behar dute pertsona eta eduki politiko eta antolatzaile konkretuekiko, beti ere aipatutako printzipioak betetzen badituzte.

13. Artikulua. Zirkuluen abala

Hautagai guztiek abala behar dute. Banakako hautagaitzek banakako abalak izango dituzte. Taldekako hautagaitzek abala zerrenda osoa (blokean) edo kide bakoitzak banaka jaso dezakete, Zirkulu berekoa izatea ez da beharrezkoa kasu honetan.

Zerrenden abalaren baldintza, kide guztiek abalaren beharra izatea da, bai blokean edo banaka. Beraz, zerrenda bateko kide guztiak edo batzuk abala banaka jaso badute, ez da beharrezkoa zerrenda osoaren abal berri bat eskatzea.

Zirkuluei dagokie abalatzeko eskubidea.

Zirkuluek jarduten duten Autonomia Erkidegoko hautagaitzak bakarrik abalatu ditzakete, bai lurraldekoak, baita sektorekoak ere. Beraz, Autonomia Erkidego bati dagokion Zirkulu batek ezin du beste autonomia bateko hautagaitzarik abalatu, Autonomia bereko udal Zirkuluek egin dezakete eta estatu mailako Zirkuluek ezin dute abalik eman prozesu honetan.

Hautagaitzek ezin dute Zirkuluen abal bat baino gehiago jaso.

Zirkulu bakoitzak gehienez 2 Idazkari Nagusi, Herritarren Kontseiluko 68 kide eta Demokrazia-Bermeen Batzorderako 12 kide abalatu ditzakete (organo bakoitzeko 2 zerrenda oso).

Abalak emateko biltzarrak urtarrilaren 7tik 20ra izango dira. Zirkulu bakoitzak bileraren berri aldeztu aurretik emango da, Zirkulu bakoitzaren betiko prozedura jarraituz.

14. Artikulua. Sufragio pasibo eskubidearen berama bereziak

Zirkuluek bermatu behar dute hautagaitzek baldintza minimoak betetzea. Funtzio honen arabera, abala ukatu daiteke baldin eta:

- a) Banakako hautagaiek edo zerrenda bateko kideren batek Podemosen Kode Etikoa betetzen ez badu.
- b) Zerrendako kideen % 10ak gutxienez Autonomia Erkidegoko Zirkuluren batean parte hartu duela bermatzen ez bada.
- c) Zerrenda batean barruan ez doazen eta aldeztu aurretik Zirkuluko bileraren batean parte hartu ez duten banakako hautagaiek abala eskatzen badute.
- d) Hautagaitza batek aurkeztu duen dokumentu politiko-antolatzailea Sí Se Puede Herritarren Biltzarrean onartutako dokumentu politiko-antolatzaile eta etikoekin bat ez badator.
- e) Zalantzaren bat baldin badago alderdi hauekin, abala ukatu zaien hautagaiek edo Zirkuluek Demokrazia-Bermeen Batzordera jo dezakete arazoa konpontzeko.

15. Artikulua. Zerrenden osaera

Zerrendetan aurkeztutako hautagaitzak ez daude behartuak genero orekaren irizpidea betetzera, ezta Demokrazia-Bermeen Batzordeko jurista kopuru minimoa ere. Irizpide zuzentzaile hauek bozketen emaitzetan aplikatuko dira.

16. Artikulua. Hautagaitzen izenak

Zerrendaren batek estatuko prozesu konstituziogileko talderen batek jada erabilitako izenen batekin aurkeztu nahi izanez gero, talde horretako kideei baimena eskatu beharko die.

Ez da onartuko zerrenden izenak Zirkulu bat ordezkari izatea, egitura honek neutrala izan behar baitu prozesuan. Beraz, zerrenden izenek ezin dute "Zirkulu" hitza izan (ez gaztelaniaz, ezta beste hizkuntzetan ere).

17. Artikulua. Prozesutik kanpo geratzeko arrazoiak

Prozesu konstituziogiletik berehala kanpoan geratuko da hautagai baten izena mespretxatzeko edozein portaera, baita akreditatutako portaera xenofobo, homofobo, iraingarri edo indarkeria Podemosen eztabaida inguruetan. Demokrazia-Bermeen Batzordeari dagokio egoera hauek ohartarazi eta aztertzea.

III TITULUA – DOKUMENTU POLITIKO-ANTOLATZAILEARI BURUZ

18. Artikulua. Idazkaritza Nagusiei lotzea

Idazkaritza Nagusiko hautagaitzak dokumentu politiko-antolatzaile bati lotuak egongo dira.

Herritarren Kontseilu Autonomikoek ezin dute dokumentu politiko-antolatzailek aurkeztu, baina Idazkaritza Nagusiarekin batera zerrenda osatzen badute, dokumentuari lotuko dira.

19. Artikulua. Edukia

Dokumentu politiko-antolatzaileek Podemosen kideek jarraituko duen autonomia-estrategiaren elementu nagusiak eta lehentasunak edukiko dituzte onartu ahal izateko

Ildo politiko eta antolatzailean sakondu beharko du, Estatu mailako Herritarren Biltzarrean onartutako inguruaren arabera, dagokion lurralde bakoitzean.

Dokumentu politiko-antolatzaileak proposamenaren laburpen bat izan behar du, gehienez 3.000 karaktere izanik (espazioekin).

Herritarren Kontseilu Autonomikoek Estatu mailako Herritarren Kontseiluan jasotako sail berdinak izango dituzte. Dena den, sail hauek elkartu ahal izango dira edota izen aldatu, Herritarren Kontseilu Autonomikoek horren beharra ikusten badute, betiere Estatu mailako Herritarren Kontseiluko zein sailekin erlazionaturik dagoen azaltzen bada.

Osasuna eta Heziketa sektoreak, autonomia kudeaketaren garrantzia dela eta, ezarriko diren sailen batean jasoko dira.

20. Artikulua. Dokumentuak onartzea

Onartuko den Dokumentu politiko-antolatzailea boto gehien jaso duen Idazkaritza Nagusiari dagokiona izango da. Dokumentu hauek Herritarren Kontseiluak bete, garatu eta aplikatu beharko ditu derrigorrez.

IV TITULUA – HAUTESKUNDE-EGUTEGIA

21. Artikulua. Hautagaitzak aurkezteko faseak

Hautagaitzen aurkezpen formala bi faseetan burutuko da.

a) 1. fasea: hautagaitza aurkeztu nahi duten pertsona guztien erregistroa.

Barne-organo autonomikoetara hautatu nahi duen pertsona orok, bai banaka, bai taldeka ere, hautagaitzaren inprimakia behar bezala bete beharko du ezarritako epean.

Podemosen inskribatutako pertsonak bakarrik bidali ditzakete hautagaitzak.

Hautagaitzen izen ematea participa.podemos.info atariaren bitartez egingo da.

Inprimakian biografia eta aurkezteko motibazioa idatzi behar da (testu bakoitza gehienez 1.500 karakterekoa izango da, espazioak barne). Horrez gain, argazki bat (JPG formatua, 2MB gehienez) eta hautagaitzak abala jaso duen Zirkuluko bileraren akta (PDF formatua eta gehienez 1 MB-ko tamainakoa) gehitu behar da, banakakoa nahiz taldekakoa.

Idazkaritza Nagusiko hautagaiek gainera, dokumentu politiko-antolatzailea gehitu behar dute (PDF formatua eta gehienez 2 MB).

Demokrazia-Bermeen Batzordeko hautagaiek ezingo dute beste organoetan parte hartu.

b) 2. fasea: lantaldeen erregistroa.

Zerrenda osatu nahi duten pertsonak bigarren inprimaki bat bete beharko dute. Zerrenda bakoitzeko inprimaki bakarra beteko da, bertan, taldea osatzen duten pertsona guztien izenak gehituko dira. Zerrenda-inprimakian aldeztatik 1. fasean erregistratu diren pertsonak bakarrik gehitu daitezke.

Bozkatze prozesua errazteko, "zerrenda" izateko, hautagaitza taldekatzeek dagokion organoaren kide kopuruaren % 30a gutxienez osatu beharko dute. Herritarren Kontseiluaren kasuan 11 kide izango dira eta Demokrazia-Bermeen Batzordean berriz 2, nahiz Idazkaritza Nagusirako hautagaitza izan edo ez izan.

22. Artikulua. Aurkezteko epeak

a) 1. fasea: edozein organoren hautagaia izateko, aurkezteko epea urtarrilaren 12tik 20ra izango da, baita Idazkaritza Nagusien dokumentu politiko-antolatzailea gehitzeko ere. Hautagaitzak jasotzeko epea urtarrilaren 20an 23:59etan amaituko da, 22:59 Kanarietan.

a) 2. fasea: lantaldeen izen-ematea urtarrilaren 2tik 24ra egingo da. Lantaldeen inskripzioa urtarrilaren 24an 23:59etan amaituko da, 22:59 Kanarietan.

23. Artikulua. Inprimakiak bidaltzen sortutako arazoak konpontzeko arauak eta epea

Hautagaiek inprimakian jarri dituzten datuak ezingo dituzte aldatu bidali ostean. Horrek esan nahi du, ezingo direla bidalitako argazkiak aldatu, ezta biografia eta motibazio testurik edo hautagaitzen izenik ere.

Era berean, hautagaitza erregistratu denean, ezingo da eskatu den organoa aldatu.

Aurkezpen eta promozio prozesuan zehar, hautagaiek baja eman dezakete, nahi izanez gero.

Onartuko diren intzidentzia bakarrak erabiltzailearena ez den arazo informatikoak eragina izandakoak dira eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Arazo informatikoa sistemaren akats tekniko bati dagokionean.
- Intzidentzia teknikoaren berri ezarritako epeen barnean eman denean (hau da, epea amaitu aurretik, 1. fasea urtarrilaren 20an eta 2. fasea urtarrilaren 24an, 22. Artikuluaren arabera) organos.autonomicos@podemos.info posta elektronikoa.

Epea amaitu aurretik berri ematen ez bada, ez da aukeratutako egongo konponketak egiteko, hautagaitza erregistratu ez den kasuan ere (erregistratzerakoan berrespen mezu bat igorriko da).

Aipatutako intzidentziak tramitatu ahal izateko, bidalitako mezuak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Podemosen izen-ematean azaltzen den helbidetik bidali beharko da beti (participa.podemos.info-n egiaztatu datuak).
- Konpondu beharreko intzidentziaren eskatzailearen zen-abizenak, NA, helbide elektronikoa eta telefono mugikorra adierazi.

- Arazoaren pantaila- kaptura gehitu, inprimakia bidaltzean azaldu den huts egitea. Pantaila-kaptura gakoa izango da arazoa aurkitu eta konpondu ahal izateko.

- Zure e-mailaren gure erantzuna jasotzen duzuetik, 24 orduko epea duzu gehienez eskatuko dizugun materiala edo datuak bidaltzeko, zure eskaera prozesatu ahal izateko. Eskatutakoa epe horretan erantzunik jaso ezean, intzidentzia itxi egingo da, konpontzeko beste aukerarik izan gabe.

- Ez bidali artxibo exekutagarriak, postak automatikoki ezabatu egingo baita.

- Ez dira tramitatuko mehatxu edo hizkera itsusia duten mezuak.

- Ehundaka (milaka batzuetan) mezu jasotzen ditugu egunean. Denon erantzukizuna da intzidentzien kudeaketa egokia egitea, beraz, eskatzen dizuegu:

a) Argiak eta laburrak izan tramitatzeko intzidentziak azaltzean.

b) Erantzuna dagokion intzidentziaren hariaren barruan egin (hari berriak irekitzeak intzidentzia konpondu gabe geratzea eragin dezake).

c) Ez bidali mezu bat baino gehiago eskaera berarekin. Honek aurkako eragina izan dezake: erantzuna lehenago jaso beharrean, mezu kopuru handiak prozesua luzatu egiten du.

Intzidentzia tramitatu den heinean, beharrezko aldaketak zuzenean egingo dira, interesdunari berrespenik bidali gabe.

24. Artikulua. Hautagaitzak berrikusi eta argitaratzea

Behin-behineko hautagaitzak <http://autonomicas.podemos.info> webgunean publikatuko dira urtarrilaren 25ean. Zerrenda hauek ez dira behin betikoak izango hauteskundeak arte.

Lurralde Prozesu Konstituziogilerako Herritarren Kontseilu eta Demokrazia-Bermeen Batzordeek berrikusiko dute prozesurako ezarri diren baldintzak betetzea (Printzipio Etikoak bereziki) eta aldaketak eskatu ditzakete hautagaitzak hauei moldatzeko, baliogabetu dadila eskatuz, beharrezkoa izanez gero.

Lehen azaldu den bezala, aurkezpen eta promozio prozesuan zehar, hautagaiek baja eman dezakete, nahi izanez gero.

Zerrendak argitaratzen direnetik lehen 24 orduetan (hau da, urtarrilaren 26ko 23:59ak arte, 22:59 Kanarietan), arazo teknikoei dagozkien akatsak detektatzen dituzten hautagaiek hauek konpontzea eskatu dezakete, beti ere organos.autonomicos@podemos.info helbidera bidaltzen badira eta 23. artikuluan azaltzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, zerrendak argitaratzen direnetik lehen 24 orduetan (hau da, urtarrilaren 26ko 23:59ak arte, 22:59 Kanarietan), Demokrazia-Bermeen Batzordeari jakinarazi ahal izango zaio Podemosen Kode-Etikoa edo araudi honetan ezarritako arauak betetzen ez badira, honako helbide honen bitartez:

<https://participa.podemos.info/es/comision-de-garantias-democraticas>

Aurreko artikuluan azaltzen den bezala, ez da onartuko inprimakiaren bitartez bidalitako datu aldaketen eskaerarik. Beraz, hautagaiek zuzenean inprimakiaren bidez igorritako datuak

ezingo dira aldatu. Zerrendak argitaratu eta 24 ordu igaro ondoren bidalitako zuzenketa eskaerek azaltzen diren baldintzak betetzen ez badituzte, ez dira aztertuko.

25. Artikulua. Hautagaitzen hauteskunde-kanpaina

Hautagaitza edo zerrenda bakoitzak beharrezkoak ikusten dituen ekintzak antolatuko ditu hautagaiak eta babesten duten programaren eduki ideologiko eta politikoa zabaltzeko.

Hauteskunde-kanpaina urtarrilaren 26tik otsailaren 8ra burutuko da, kanpainako ekintzak epe honen barruan burutu beharko direlarik. Aldez aurretik, hautagaitzak aurkeztu daiteke botorik eskatu gabe.

Estatu mailako Herritarren Kontseiluak Podemosen web orrian gune bat eskainiko dio hautagaitza guztiak baldintza berdinetan ezagutarazteko.

Estatu mailako Herritarren Kontseiluak parte hartzeko guneak eta dinamikak bultzatuko ditu hautagaiak ikusarazteko eta hauen eta herritarren arteko harremana sustatzeko. Honen zehazpena hautagai kopurua eta antolaketa baliabideen arabera izango da.

Neutralitatearen printzipioari jarraiki, kontu ofizialen bidez (sare sozialak, helbide elektronikoa etab.), Zirkuluek printzipio hau bete behar dute eta prozesua orokorrean eta hautagaitza guztiak aurkezteko guneak bakarrik sustatuko dituzte.

V TITULUA – HAUTATZE PROZESUA

26. Artikulua. Nork bozkatu dezake

Barne-organoen hauteskunde primarioetan, dagokion Autonomia Erkidegoan Podemosen inskribatuta dagoen edozein pertsonak bozkatu dezake.

27. Artikulua. Botoaren prozedura

Botoa telematikoki emango da participa.podemos.info webgunean. Estatu mailako Herritarren Kontseiluak autonomia erkidego bakoitzaren eroldaren arabera hauteskunde sistema antolatuko du.

Herritarrei bozketa errazteko, boto telematikoa emateko mahaia ipini ahal izango dira.

Taldeko hautagaitzek organo guztiei dagozkien zerrenda osoko proposamenak egin ahalko dituzte (Idazkaritza Nagusia, Herritarren kontseilua eta Demokrazia-Bermeen Batzordea), beti ere hautagaitzen 2. fasean erregistratu badira zerrenden inprimakiaren bidez.

Zerrenden sailkapena aleatorioa izango da bozkatzeko txarteletan.

Zerrendetan aurkezten ez diren hautagaiak zerrenda bakar batean elkartuko dira eta beren izenak aleatorioki azalduko zaizkie hautesleei.

Herritarren Kontseilua eta Demokrazia-Bermeen Batzordea hautatzea zerrenda irekien bidez egingo da, hautesle bakoitzak zerrenda osoa edo zerrenda ezberdinetako hautagaiak edo banakako hautagaiak aukeratu ditzake

Hautesle bakoitzak idazkari Nagusi 1 bozkatu dezake gehienez (dokumentu politiko-antolatzaileari lotua egongo dena), Herritarren kontseilurako 34 pertsona gehienez eta Demokrazia-Bermeen Batzorderako gehienez 6.

28. Artikulua. Hauteskunde aldia

Bozketa otsailaren 9ko 9:00etatik (8:00 Kanarietan) otsailaren 13ko 23:59ak arte (22:59 Kanarietan) burutuko da.

Arazo teknikoengatik bozketaren hasiera atzeratuko balitz, atzerapenaren baliokide izango den ordu kopurua luzatu egingo litzateke prozesuaren amaiera.

VI TITULUA – EMAITZAK JAKINARAZTEA

29. Artikulua. Hauteskundeen emaitzen zuzenketa

Organo bakoitzean boto gehien jaso dituzten pertsonak izango dira hautatuak, partaide den taldea alde batera utziz, zuzenketa bakarra genero-paritate osoa lortzeko.

Demokrazia-Bermeen Batzordearen kasuan, aurrekoaz gain, ezarritako jurista portzentajea bermatzeko zuzenketa aplikatuko da, 3 kide gutxienez (2 titular eta ordezeko 1 edo titular 1 eta 2 ordezeko izango direlarik).

30. Artikulua. Barne-organoak aldarrikatzea

Estatu mailako Herritarren Kontseiluak otsailaren 14an aldarrikatu eta argitaratuko ditu zerrenden emaitzak.

Idazkaritza Nagusia hautatzearekin batera, dagokion dokumentu politiko-antolatzailea behin betikoa izango da.

31. Artikulua. Idazkari Nagusiaren uztea

Idazkari Nagusiak utziko balu, bai dimisioagatik, heriotza edo beste edozein arrazoi dela eta Demokrazia-Bermeen Batzordeak baieztaturik, hauteskunde prozesua errepikatu egingo da.

Uztea prozesu konstituziogilean zehar gertatuko balitz, justifikatutako arrazoiengatik eta Demokrazia-Bermeen Batzordeak onartua, hautagaitzak Idazkari Nagusi berri bat aukeratu dezake zerrendako kideen artean.

32. Artikulua. Herritarren Kontseilu edo Demokrazia-Bermeen Batzordeko kideen uztea.

Herritarren Kontseilu edo Demokrazia-Bermeen Batzorde Autonomikoko kideek utziko balute, 31. Artikuluan adierazitakoaren arabera jokatu da.